

URBANISMO - ARKITEKTURA - HIRIA
URBANBATEFEST
2024
Origen
BILBO



HIRI MIGRA- TZAILEAK

JAIALDIARI BURUZ


URBANBATfest laborategi bat den jaialdia da. Edo jaialdi baten bihurtzen den laborategia. Ikaskuntza, esperimentazio eta sorkuntza kolektiboko ingurune bat, hiri-berrikuntzako prozesuak bultzatzeko.

Edizio bakoitzean, URBANBATfest-ek hiri-fenomeno garaikide baten ikerketan jartzen du arreta. Eta denboran eta formatuetan hedatutako programa baten bitartez egiten du, jardunbide kulturalak eta artistikoak, arkitektura eta hirigintza, gizarte-zientziak eta kokatutako esperientziak gurutzatuz, elkarguneak ezarriz formala denaren eta informala denaren, teoriaren eta praktikaren, eratuta dagoenaren eta sortzen ari denaren artean.

Gure ingurune hurbilenean eragiten ari diren hiri-fenomenoak behatuz eta entzute aktiboa eginez hasten den lan-metodologia bat, hiriak giza mailan diseinatzea ahalbidetuko diguten aukerak proposatzeko eta baterako konponbideak lortzeko. Jarduera desberdinen arabera antolatzen da programa, eta hiriaren eraldaketa lortzeko tartean sartuta dauden eragile desberdinen arteko topaguneak abian jartzeko ahalegina egiten du: administrazio publikoa, gizarte-eragileak, kultura arloko eragileak, ekonomia-arloko eragileak, unibertsitatea, herritarrak... Jaialdian hiri-errealitatearen eta errealitate horrek dituen gatazken azterketa egiten da diziplina anitzeko programazio baten bitartez eta eztabaida nahiz azterketaren xede den kasua aberasten dituzten eta parte hartzeko metodologiak, erreferentziak eta tresnak ematen dituzten formatu desberdinak erabiliz.

Elkarlaneko berrikuntza irekiaren ideia horretatik abiatuta, kultura aldaketa bat bilatzen dugu, publikoa denari, guztiona denari buruzko hainbat jarrera eta balioetan ez ezik, hiria eraikitzeko moduan ere eragina izango duena.

[info + hemen](#)
[+aurreko edizioak](#)



HIRI MIGRATZAILEAK

URBANBATFEST 13. edizioa

Arkitektura eta hirigintza jaialdia

URR.17 - URR.OCT _ 2024 Bilbo

Migrazioak etengabeko fenomenoak izan dira gizateriaren historian eta funtsezko papera izan dute hirien eraketan eta garapenean. A priori oso hurbilketa berritzailea ez dela dirudien arren, gaur egun gai gutxi daude migrazioen gaia baino garrantzitsuagoak direnak, arazo politiko, geo-estrategiko, ekonomiko, ingurumeneko, sozial eta urbanistikoez zeharkatutako gaia izaki. Azpimarratu beharra dago, gainera, egiturazko faktore berriek inoiz baino indar handiagoz bultzatzen dituztela migrazio horiek. Ekialde Ertaineko, Afrikako eta Latinoamerikako ezegonkortasunak, Ukrainako gerrak, klima-aldaketak, pobreziak eta hazkunde demografikoak, ez dute handitu besterik egiten munduan leku hobeko bat bilatzen duten pertsonen lekualdaketa.

Beren herrialdeko asaldura politikotik ihesi dabilten etorkinen eta gure herrian bizimodu hobea bilatzen duten etorkin ekonomikoen migrazio-moduei beste migrazio-modu berri bat erantsi die Saskia Sassen soziologoak. "Errefuxiatu ekonomiko" gisa izendatu ditu "habitat galera masiboa" deitzen duen egoeratik ihesi dabilten pertsonak. Galera hori planetan kontsumitzen dugun haragi kopuru itzela elikatzeke zerealen hazkuntzarako lurren metatze korporatiboaren gisako jardura ekonomikoek eragindakoa da; edo gure iraultza elektronikorako behar ditugun metalak lortzeko meatzaritzaren susperraldiak sortutakoa. Basamortutzea edo desertifikazioa eragiten duten jarduerak dira, lurraren eta

uraren kutsadura, lehortekak eta itsasoaren mailaren igoera eragin duten jarduerak. Euren bizitokia jada bizigarria edo habitagarria ez delako edo desagertu egin delako euren etxera itzultzeko aukerarik sekula izango ez duten milioika pertsonaren habitata suntsitzen ari diren faktoreak dira horiek guztiak.

Horrela beraz, Sassenentzat migrazioa ez da ustekabeen sortzen den ausazko gertakari aleatorio bat. "Migrazioak egin egiten dira, ez dira kasualitatez gertatzen, sorrarazi egiten dituzten baldintzak daude", eta baldintza horietako asko gaur egungo bizimoduari edo bizitzeko estiloari eustea ahalbidetzen digun kapitalismoaren ondorio gisa sortzen dira. Horrela beraz, gutako bakoitzak migrazioak berekin lotuta dakartzan erronkekin konpromisoa hartzeko erantzukizuna daukagula esan daiteke. Horretarako, agerikoa da pertsona migranteengana hurbiltzeko daukagun moduarekiko paradigma-aldaketa baten premia beharra, ez arazo gisa edo laguntzaren zain dauden biktima pasibo gisa ikusiz, baizik eta gizarteari ekarpena egiteko moduko esperientziak, ezagutzak eta ikuspegi baliotsuak dituzten pertsona gisa ikusiz.

Testuinguru honetan, gizateriaren historiako mugikortasun-maila handienak ditugun garai honetan, hiriak dira milioika pertsonak euren bizitza eta etorkizuna eraikitzeko bilatzen duten lekua. Gizarte-etxebizitzak, hezkuntza, osasun-zerbitzuak, garraio-azpiegiturak eta gizarteratzea eta kohesioa eskaintzeko migrazio-erronkari aurre gin behar dioten hiriak. Horregatik beharrezkoa da hiri-plangintzako politika eta praktikak inklusiboak izatea eta pertsona migratzaileen behar eta ekarpenak kontuan hartzea. Horrek guztiak espazio-aukera berriak sorraraz ditzake eta gure hiriak sortzen ditugun modua aberastu ere egin dezake, logika konbentzionaletatik kanpoko alternatibekin.

Potentzial hau guztiz garatzeko, plangintza-prozesuari migrazioa gehitu behar zaio, hiriaren hazkuntza ekonomiko, sozial eta kulturalen lagunduko duen faktore gisa. Modu honetan, hiriek etorkizunean zer izan behar duten eta elkarrekin nola bizi nahi dugun birpentsatzea ahalbidetzen digu migrazioaren gaiak. Egoera honetan, arkitekturak eta hirigintzak zeregin erabakigarria bete behar dute, giza biztantzaren bere forma eta eskala guztietan –etxetik hiriraino– aztertzen duten diziplina gisa, erronka teknikoa izateaz gain humanistikoa ere baden erronkari aurre egiteko.

Leku honetatik proposatzen dugu URBANBATfest jaialdiaren edizio berri bat. Partaidetzarako leku ireki bat, migrazio-dinamikak eta hiri-eraldaketen arteko harremana elkarrekin esploratzeko gune bat, hainbat gai jorratzea helburu izanik: dimentsio sozio-espazialak eta arkitekturaren, hirigintzaren, gizarte-zientzien eta praktika artistiko eta kulturalen arteko gainjarritako gurutzaketatik imajina ditzakegun erantzun motak.

PROGRAMA

URR. 17

INAUGURAZIOA

ARGAZKI-ERAKUSKETA. Arkitektura migratzaileak.

Lekua: Hika Ateneoa

Ordua: 19.00-21.00

Metroko Unamuno geltokian bisitatu ahal izango da erakusketa urriaren 15etik azaroaren 15era arte.

Bilbo, Logroño eta Santanderreko hirietan erakutsiko den argazki-erakusketa bat da *Arkitektura Migratzaileak* erakusketa, migrazioaren, arkitekturaren eta hirigunearen arteko interakzioa aztertzen duena.

Hika-Ateneoan egingo dugu inaugurazio-ekitaldia urriaren 17an 19:00etan. Erakusketako argazkiak egin dituzten hiru argazkilari izango ditugu gurekin: Jorge Isla, Sara Cuerdo, Daniel Martínez y Pablo Ruíz.

Sarrera librea eta doakoa lekua bete arte
[+info](#)

URR. 18

CARNE CRUDA / HARAGI GORDINA

RADIO SHOW

Lekua: La Terminal

Ordua: 20.00-21.30

Haragi Gordina erakusketako taldea aldi baterako lekualdatuko da Bilbora emanaldi berezi bat egiteko Urbanbatfest jaialdian elkarrizketak, eztabaidak eta zuzeneko musika izango dituen formatu batekin, migrazioak hiri garaikideen konfigurazioan duen garrantzia azpimarratzeko.

Sarrera librea eta doakoa lekua bete arte

URR. 19

COLLAGE AFROFUTURISTAKO TAILERRA

KARINA SENATORE-REKIN

Lekua: KOOP SF 34

Ordua: 10.00-13.00

Collagearen teknikaren bidez hurbilduko gara afrofuturismora tailer honi esker Karina Senatore artistarekin. Mugimendu kultural eta artistiko honek diaspora afrikarreko, zientzia fikziozko, teknologiko eta fantasiako elementuak bateratzen ditu nortasun berri bat erreibindikatzeko, kolonizazioaren aurreko sustraiak etorkizun posibleetan proiektatuz.

[+info eta inskripzioak](#)

URR. 19

"MIGRARTE A LA TERMINAL"

Lekua: Terminala

Ordua: 20.00-22.00

Migrazio-prozesuetarako hurbilketa bat hiru proiektu artistikoren bidez:

- **Antropoloops**, Rubén Alonsok eta Esperanza Morenok garatutako birnahasketa musikaleko proiektu bat da
- **"Un chow andino en Madrid"**, Allyson Vilaren proiektua.
- **"Travesías Líquidas: especulaciones plásticas y visuales en las migraciones contemporáneas"**, Santiago Velez artistarena

[+info eta inskripzioak](#)

URR. 20

DIVERSITOUR

Lekua: Saralegiko Tximinia

Ordua: 11.00-14.00

San Frantzisko, Bilbo Zaharra eta Zabala auzoetan barrena egiten den gidatutako bideen hezkuntza-proposamen bat da Diversitours, Bilbo hiriak duen aberastasuna eta kultura-dibertsitatea erakusteko. **SF34** guneko lantaldeak gidatzen du jarduera, migratzaileen integrazio sozio-laboralean laguntzeko San Frantzisko auzoaren erdian sortutako integrazioarako gunen eskutik.

[+info eta inskripzioak](#)

URR. 24

BIDALKETA-ARKITEKTURAK

Lekua: Anti Liburudendan
Ordua: 19.30-21.00

Bidalketako arkitekturari eta hirigintzari lotutako elkarrizketa, azken hamarkadetako migrazio-prozesuaren ondoriozko fenomeno arkitektoniko eta urbanistikoak direnez, bereziki Latinoamerikan. **Inés Vachezen** eta **Diego Barajasen** parte-hartzearekin, **Luis Manuel Ochoak** aurkeztuak.

[+info eta inskripzioak](#)

URR. 25

HACKATOIA: MANTARI TIRAKA

Erabiltzen ez diren lokalak harrerako ekipamendu gisa aktibatzea

Lekua: IED Kuntshal
Ordua: 9.00-19.00

Hirien diseinua harrera-hiri bihurtzeko egokitu beharreko premiari buruz lan egingo dugu tailer honetan; gero eta handiagoa den biztanleria migratzaile baten premiei hobeto egokitutako hiriak lortzeko. Tailer bat Kunstheleko barrualdeen diseinuen ikasleekin eztabaida elikatzeko etorkizunerako agertoki errepikagarriak, zeharkakoak eta berritzaileak proiektatzeko.

Honako hauen parte-hartzearekin: **Camila Pinzón**, **Eva Serrats** eta **Mbolo Moya Doole**, Bizkaiko plataforma manteroa .

[+info](#)

URR. 26

HIRIA MAHAIAREN GAINEAN

Ibili, gelditu, ostatu eman/hartu
FRANCESCO CARERI-REKIN

Lekua: Leongo Etxea
Ordua: 19.00-21.00

Topaketa Leongo Etxearen aretoko mahai baten inguruan Francesco Careri arkitektoarekin solasean aritzeko, Leongo probintziako zenbait janari dastatzen ditugun bitartean.

[+info eta inskripzioak](#)

URR. 27

BASO ARTEAN

Harrera-arkitekturak

Lekua: Azaroak 25 emakumeen enparantza

Ordua: 10.00-17.00

Arratiako haraneko Arteako udalerrira (Bizkaia) abiatuko gara harrera-arkitekturako bi proiektu ezagutzeko:

- **Basoa** ekintzaileek zaharberitutako baserri bat da, eta horri esker beren herrialdeak nahitaez utzi behar izan dituzten giza eskubideen defendatzaileak bizi dira bertan.
- **Artea Sarea**. Migratzaileei laguntzeko sarea Arteako udalerrian. Migratzaileak eta errefuxiatuak hartzen ditu sareak, elikadura-burujabetza eta migratzaile langileen eskubideak defendatuz.

[+info eta inskripzioak](#)

ZINEMA FILMIN-EN

Filmen bilduma streaming bidezko Filmin zinema-plataforman.

[+Film guztiak hemen](#)

TESTUAK

Jaialdiak hiriaren eta migrazioen arteko harremanari buruz hausnartzen duten hainbat egileri eskatutako testu-bilduma.

[+Testu guztiak hemen](#)

SARREAK ETA IZEN-EMATEAK

Sarrera guztiak hemen

INFORMAZIO OROKORRA

URBANBAT Koop-i buruz(Antolatzailea):

URBANBAT Koop. (Antolatzailea)

Hirigintzan, arkitekturan, parte-hartzean eta hiri-eraldaketei buruzko ikerkertzen diharduen gizarte-ekimeneko kooperatiba gara.

<https://urbanbat.org/eu/>

IRUDIAK

Irudiak Deskargatu

Aurreko ediziotako argazkiak

SARE SOZIALAK

Twitter @urbanbat

Instagram @urbanbat_

LinkedIn URBANBAT

#URBANBATfest

PRENTSA KONTAKTUA

Gorka Rodríguez Olea, +34 944258258, gorka@urbanbat.org

17
OCT

INAUGURACIÓN
EXPOSICIÓN DE FOTÓS
ARQUITECTURAS MIGRANTES

HICA ATENEO 19:00



18
OCT

CARNE CRUDA RADIO
en directo

LA TERMINAL 20:00



19
OCT

TALLER DE COLLAGE
CON KARINA SÉNATORE

COOP SF 34 10:00_13:00



MICRARTE A LA TERMINAL
SANTIAGO VÉLEZ, ALLYSON VILA
Y RUBEN ALONSO

LA TERMINAL 20:00



20
OCT

DIVERSITOUR
RUTA INTERCULTURAL
SAN FRANCISCO, BILBAO LA VIEJA Y ZABALA

LA CHIMENEA DE SABALEGUI 11:00_14:00



24
OCT

ARQUITECTURA DE REMESAS
Inés Vachez y Diego Barajas
Presentados por Luis Manuel Ochoa

ANTI LIBRERÍA 19:30



27
OCT

BASO ARTEAN
VITTO & BARRA Y AL DEBUTTO ARTEAN
(ARTEAN, VALLE DE ARRATIA)

PZ 27 DE LAS MUJERES 25 NOV
10:00_17:00



25
OCT

HACKATON: TIRAR DE LA MANTA
La activación de locales en desuso
como equipamientos de acogida

IED KURSTHAL 9:00_19:00



26
OCT

LA CIUDAD SOBRE LA MESA
CON FRANCESCO CARERI
ANDAR, DETENERSE, HOSPEDAR(SE)



HOGAR LEONES 19:00



ANTOLATZAILEA



BABESLEAK



KOLABORATZAILEAK



LACUNTZAILEAK



MEDIOAK

